

KANALAK

Gure xede nagusia gure izena jendeartean zabaltzea da, eta era berean, ahal den kopuru handienari era egokian birziklatzeko zenbait aholku eta trikimailu erakustea, gizartea birziklatzeak duen garrantziaz jabetzen den bitartean. Horregatik, gure proiektua aurrera eramanean ahal izateko, nahitaezkoa izango dugu hainbat kanalen laguntza.



Ezeri ekin baino lehen, gure aplikazioa sortu beharko dugu, eta horretarako, Play Store (Android duten mugikorrenzat) eta App Store (IOS duten mugikorrenzat) izeneko Googlek eta Applek gauzatutako aplikazioekin kontaktuan jarri beharko gara. Bertan, edonork aukera izango du gure app-a deskargatzeko.

Publizitateari dagokionez, eta gure enpresaren izena ezagutzera eramateko, beharrezkoa dugu gai honetan jakintza handia duten enprekin kontaktuan egotea. Horregatik, Diario Vasco, Berria, EITB eta Sasieta enpresei laguntza eskatuko diegu, beraien eskeintzen bitartez, biztanleen artean gure izena eta produktua zabal dezaten.

Hasteko, Diario Vasco eta Berria erakundeko langileekin harremanetan jarriko gara. Euskal Herrian gehien irakurtzen diren egunkariak direla uste dugunez, gure produktua bertan azaltzen bada, honen eskaera handituko dela uste dugu. Hortaz aparte, EITBko langileekin ere hitz egingo dugu, gure aplikazioaren erreportai bat egin eta eguerdiko eta gaueko orduetan erakus dezaten. Euskal Herriko biztanleei zuzenduta degoenez gure aplikazioa, uste dugu egokia dela publizitatea egiteko. Gainera, azken hilabeteetan bertako ikusleen ehuneko handitu egin da, horregatik aproposa dela uste dugu.

Sasieta erakundearekin ere kontuaktuan jarriko gara, izan ere, hauek eskoletan umeei zenbait hitzaldi egiten espezializatuak dira, eta garrantzitsua iruditzen zaigu txiki-txikitatik umeei gai honen kontzientzia eta normaltasuna eskeintzea. Gainera, eta horrekin baliatuta, gure produktuaren berri emateko aukera aparta iruditzen zaigu, etxean ere informazioa zabal dezaten eta, horrela, produktuaren erabiltzaile kopurua handitzeko.



Azkenik, erabiliko dugun azken kanala sare sozialak izango dira. Geroz eta jende gehiagok tresna hauek erabiltzen dituztela jakinda, Instagram eta Facebook bezalakoetan kontu propio bat sortuko dugu: **@ekinbirziklatzeari** izenaren bitartez aurkitu ahal izango dutena. Bertan, aplikazioak nola jardungo duen azalduko dugu, eta proiektuari buruzko xehetasunak azalduko dira, etorkizunean antolatuko ditugun zenbait ekintzen berriez aparte, non familiek parte hartzeko aukera izango duten, nahi izanez gero.

